



47/2021 EBAZPENA, uztailaren 1ekoa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-poltsa handitzeko deialditik datozen langileak integratzeari buruzkoa. T.G.-M.K. Aukera: Albaitaritzako Lizentziatura.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak (EHAA, 2021eko urtarrilaren 25ekoa) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketari aplikatu beharreko araudia zehazten du, eta 3. eta 4. artikuluetan ezartzen ditu Administrazio honetan lan-poltsak eratzeko, lan-poltsak handitzeko eta langileak integratzeko kasuak.

Administrazio honek beharrezkotzat jo zuen T.G.-M.K. Aukera: Albaitaritzako Lizentziaturaren lan-poltsa handitzea, IVAPek egindako deialdi espezifiko baten bidez, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 8. artikulua araberaz. Horrela, bada, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren 2021eko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez, T.G.-M.K. Aukera: Albaitaritzako Lizentziaturako lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren 2021eko uztailaren 1eko Ebazpenaren bidez aldatutako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren 2021eko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez T.G.-M.K. Aukera: Albaitaritzako Lizentziaturaren lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, eta handitzeko prozesua amaitu ondoren, bidezkoa da langile horiek dagokien lan-poltsan sartzea, deialdian bertan jasotako baldintzetan. Beraz, langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken kidearen ondoren sartuko dira, hautaketa-prozesuaren ondoriozko ordena berean eta zero puntuazioarekin.

Azkenik, agindu horretan xedatutakoarekin bat etorriz, ebazpen hau argitaratuko da, bai eta eguneratutako lan-poltsaren zerrenda ere, Administrazioak informazioa zabaltzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan. Horrela, lan-poltsari buruzko informazio hori eskuragarri egongo da interesdunek horren berri izan dezaten.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikuluan eta lehen aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3. artikuluan esleitutako eskumenaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren 2021eko ekainaren 30eko Ebazpenean zerrendatutako langileak gainditutako handitze-prozesuari dagokion lan-poltsan sartzea, honako irizpide hauen arabera:



a) Indarrean dagoen lan-poltsako azken kidearen ondoren sartuko dira langileak, aipatutako ebazpenean jasotako hautaketa-prozesuaren ondoriozko ordenan eta zero puntuazioarekin.

b) Lan-poltsan sartutako langileei mota guztietako eskaintzearako prestasun osoa eta Euskal Autonomia Erkidego osorako prestasuna aitortuko zaie; horrela, edozein iraupeneko eta edozein lurralde historikotan jarduteko eskaintzak jasoko dituzte. Interesdunek bi prestasun-mota horiek aldatu ahal izango dituzte, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 12. eta 21. artikuluekin bat etorriz.

2.- Lan-poltsaren zerrenda berria poltsen atarian argitaratzea, www.euskadi.eus/bolsastrabajo helbidean.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 1a.

FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA